



TXOSTEN EKONOMIKOA

**Ondare Eskualdaketan eta Egintza
Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan
eta zerga berezien araudian aldaketak
sartzeko Foru Dekretu Arauari buruz**



1. Sarrera

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren zergabilketan Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan eta zerga berezien araudian aldaketak sartzeko Foru Dekretu Arauak.

Helburua da kalkulatzea zenbateraino aldatuko den zergabilketa gaur egun indarrean dagoen araudiaren ordeztu arau proiektu berriari jasotzen diren aldaketa nagusiak aplikatzen badira. Hortaz, txosten honen xedea ez da proiektuan sartzen diren neurriak termino absolututan ebaluatzea, neurri horiek hartu eta indarrean daudenekin alderatzea baizik.

2. Araudiaren aldaketak

Ekonomia Itunak dioenez, lurralde historikoek zerga berezietan eta sozietate eragiketetan estatuan bezalako araudi funtsezko eta formal bera aplikatuko dute.

Estatuan berriki onartu den abenduaren 3ko 13/2010 Errege Dekretu Legeak artikulua batzuk aldatzen ditu Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legean eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Legearen Testu Bateratuari buruzko irailaren 24ko 1/1993 Errege Dekretu Legegilean, eta horrek beharrezko egiten du Gipuzkoako



zerga araudia aipatutako errege dekretu legean sartutako aldatetara egokitzea.

Indarrean dagoen araudia eta proiektuan proposatutakoa alderatuz bien arteko diferentziarik esanguratsuenak identifikatu ditugu:

1. Tabako laboreen gaineko zergan aplikatzen diren tasak:

- Zigarroak eta zigarrotxoak: %14,5etik %15,8ra aldatzen da.
- Zigarriloak:
 - i. Berariazko tasa 10,20 eurotik 12,70 eurora aldatzen da 1.000 zigarriloko.
 - ii. Tasa bakarra 91,3 eurotik 116,9 eurora aldatu da 1.000 zigarriloko.
- Tabako xehea:
 - i. Berariazko tasa 6 eurotik 8 eurora aldatzen da kilogramo bakoitzeko.
 - ii. Tasa bakarra 50 eurotik 75 eurora aldatzen da kilogramo bakoitzeko.
- Gainerako tabako laboreak: %26tik %28,4ra aldatzen da.

2. Sozietate eragiketen modalitateko tributaziotik salbuetsizat hartzen dira sozietate eraketak, kapital gehikuntzak, bazkideek kapitala gehitu gabe egiten dituzten ekarpenek eta, azkenik, sozietate baten benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala Espainiara aldatzeak, ez bata eta ez bestea aurretik Europar Batasuneko estatu kide batean kokatuta egon ez bada.



1. puntuak proposatutako aldaketek igotzeko bai tarifetan eta bai zerga tasetan, eta horren ondorioz, zergabilketak gora egingo DU.
2. puntuak proposatutako aldaketek zergabilketa murriztea ekarriko dute, tributaziotik salbuetsitako kontzeptu berriak sartzen baitira.

3. Zergabilketa eragina

3.1 Tabako Laboreen gaineko Zerga

Tabako Laboreen gaineko Zergaren aldaketari buruz proposatutako neurriek zergabilketan duten eragina kalkulatzeko, kontuan izan behar dugu zerga honek ezaugarri berezi jakin batzuk dituela:

- Gipuzkoako Foru Ogasunak legezko kuota exijitzez gainera, zerga administrazio desberdinen artean (gainerako foru ogasunak eta estatuko ogasuna bertan direla) doikuntzak egiten dira benetan lortutako bilketan, zergapetutako produktuen amaierako kontsumoa fabrikaziokoa ez den beste lurralde batean gertatzeak dakarren distortsioa zuzentzeko.
- Zerga berezien bilketan ez ezik, Balio Erantsiaren gaineko Zergan ere eragiten dute proposatutako aldaketek, zerga berezien zenbatekoak BEZaren oinarrian sartuta daudelako. Hau da, azken horien hazkundeak BEZaren oinarri ezargarria igotzen du eta, beraz, haren bilketa ere igotzen da.



Zerga hauengatik aitortzera behartutako subjektu pasiboen aitorpenak abiapuntu harturik, eta ekitaldi honetarako egin diren zerga-bilketa aurreikuspenak kontuan izanik, zerga-bilketa 7.780.000 euro gehituko da urte oso baterako kalkulua eginda. Kopuru horren barruan sartuta daude beste aldundiekin eta estatuarekin egin behar diren doikuntza guztiak.

Hona hemen zergaz zerga banatuta:

1. Tabako Laboreen gaineko Zerga: 6.593.220 euro
2. Balio Erantsiaren gaineko Zerga: 1.186.780 euro

3.2 Hainbat sozietate eragiketaren salbuespena.

Hainbat sozietate eragiketaren salbuespenari buruz proposatutako neurriek zergabilketan duten eragina kalkulatzekoan, kontuan izan behar dugu zerga honek ezaugarri berezi jakin batzuk dituela:

- Bakarrik kapital murrizpena eta sozietate baten desegitea direla-eta gertatzen diren sozietate eragiketak lotuta daude Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari. Egintza Juridiko Dokumentatuetan bi kontzeptu horiek direla-eta bildutakoa oso kopuru txikia da.
- Sozietate eragiketak ez dira denbora jakin batean gertatzen, hau da, ezin dira aurreikusi eta denboran aldatzen dira.



Dirua biltzen den ia kontzeptu guztiak sozietate eragiketen gaineko zergatik salbuetsizat hartzen direla kontuan hartuta, gure kalkuluen arabera, gutxiago bilduko da, alegia bilketaren balizko jaitsiera (zergabilketa txikiagoa) 2005-2009 aldiko urtean batez beste bildutakoaren adinakoa izango da: 6.928.086 euro.

3.3 Iritzi orokorra eta neurrien laburpena.

Bilketa igoeraz egin dugun kalkulua 2011ko ekitaldirako da, eta 851.914 euro da; hona banaketa zergaz zerga:

- Tabako Laboreen gaineko Zerga:	6.593.220 euro
- Balio Erantsiaren gaineko Zerga:	1.186.780 euro
- Sozietate eragiketak:	-6.928.086 euro

4. Genero eragina.

4.1. Txostenaren oinarriak eta xedea.

Euskal Autonomia Elkargoko gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 6. artikuluan foru administrazioei ematen die emakume eta gizonen arteko berdintasuneko printzipioaren arabera foru araudiari eta horren aplikazioari jarraipena egiteko ahalmena. Era berean, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezartzen du, foru arauen aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak prestatzeko prozeduraren barruan, genero eraginari buruzko derrigorrezko txosten bat aurkeztea eranskin gisa.



4. 2. Genero ikuspuntutik kontuan hartzeko neurrien identifikazioa.

Foru dekretu arau proiektu honen bidez, zerga arloko hainbat alderdi aldatuko dira. Ildo horretan, pertsoneri (gizonak edo emakumeak) eragingo dieten neurri batzuk identifikatu dira. Zehazki, eragin hauek izango dituzte:

Estatuan Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legearen hainbat xedapen aldatzen dituen abenduaren 3ko 13/2010 Errege Dekretu Legea onartzeak berarekin dakar Tabako Laboreen gaineko Zergaren ezarpen tasak aldatzea.

Aldaketa horrek zuzenean gizon eta emakumeei eragiten die. Horregatik, iruditzen zaigu aldaketa hau aztertzea EGOKIA dela, baina ezin da kuantifikatu genero eraginari dagokionez.

Produktuak fabrikatzen duen entitateak Administrazioari ordaintzen dio zerga, nahiz eta gero kontsumitzaileari ordainarazi. Beraz, neurri horrek zuzenean kontsumitzaileari eragiten dio.



Kontsumoari buruzko daturik ez dugunez, tabako kontsumoari buruzko taulak jasotzen ditugu beherago. Datu horiek EUSTATEk argitaratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko ohiko (beraz, ez noizbehinkako) kontsumitzaileen portzentajeari dagokionez, sexuaren eta adin taldearen arabera; Gipuzkoako biztanle kopurua estrapolatuta dago adin talde bakoitzean:

Tabako kontsumitzaileen % sexu eta adin taldearen arabera. EAE

	Gizonak	Emakumeak
Guztira	29,1	21,1
16-24	22,9	25,5
25-44	35,6	31,8
45-64	30,2	20,8
65 eta gehiago	16,3	3,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Osasun inkesta.

Tabako kontsumitzaileen zenbatekoa sexu eta adin taldearen arabera. GIPUZKOA

	Gizonak	Emakumeak
Guztira	99.842	74.941
16-24	6.650	6.994
25-44	40.286	33.585
45-64	28.669	20.112
65 eta gehiago	8.861	2.522

Gizonen eta emakumeen % adin taldearen arabera . GIPUZKOA

	Gizonak	Emakumeak
Guztira	57,1	42,9
16-24	48,7	51,3
25-44	54,5	45,5
45-64	58,8	41,2
65 eta gehiago	77,8	22,2



Tabako Laboreen gaineko Zergaren araudiaren aldaketak eragindako bilketa igoera gizon eta emakumeei egotzi ahal izateko, kontsumitzaile kopuruaz gain zer produktu eta zenbat kontsumitzen duten jakin behar dugu.

Bakarrik kontsumitzaile kopurua ezagutzen dugunez, bilketaren igoera parametro horren arabera banatzen ditugu, eta iruditzen zaigu igoeraren ia %57k gizonei eta %43k emakumeei eragiten diela.

Donostia, 2010eko abenduaren 15a

AZTERLAN ATALEKO BURUA